

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, SPRILUR SA-REN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2017.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osokoak joan den uztailaren 24an aho batez onartu zuen Sprilur SAren ekonomia eta finantzaren kudeaketaren gaineko fiskalizazio txostena, 2017ko ekitaldiarena.

2017ko **urteko kontuei** dagokienez, Epaitegiak **aldeko iritzia** plazaratu du.

Honela, bada, ondorioztatu du Sozietateak zuzentasunez bete duela 2017ko ekitaldian ekonomia eta finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.